Getxo
bizi ezazu

**Orri kopurua** / Nº de páginas: 2 **Data** / Fecha: 2023-01-25

**PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA**

## Makaletako etorbidearen eta Ollarretxeren artean bidegorria lotzeko lanak hasi dira

Gaur, asteazkena, hilak 25, Makaletako etorbideko bidegorria Ollarretxe kalekoarekin lotzeko lanak hasi dira, Salsidu etorbidearekin bat egiten duen tokian. Jarduketa hau gauzatzeko epea bi astekoa da.
Lanak direla eta, ibaiaren aldeko oinezkoen pasabidea kendu egingo da uneka, eta horretarako jarriko diren ibilbideak erabili beharko dira.
Bidegorrien inguruan oinezkoentzako ibilbide, mozketa eta desbideratzeen seinaleei arreta jartzea eskatzen da.

Bidegorrien sarea hobetzeko lanetan aurrera egiteko, gogoratu pasa den ostiralean Makaletako etorbidean dagoen eta Areneazpikoarekin bat egiten duen bidegorriaren zati baten errodadura eta seinaleztapena hobetzeko lanak hasi zirela, Fadurako biribilgunearen eta Garbiguneko oinezkoen pasabidearen arteko zatian, hain zuzen ere. 6 astez luzatuko dira lan horiek.

Bidegorriak hobetzeko eta handitzeko jarduerak 2021eko aurrekontu parte-

## Comienzan los trabajos para la conexión del bidegorri entre avda. Los Chopos y Ollarretxe

Hoy miércoles día 25 han comenzado las obras para conectar el bidegorri de la avda. Los Chopos con el de la calle Ollarretxe, en la confluencia con la avda. Salsidu. El plazo de ejecución de esta actuación es de dos semanas.
Con motivo de las los trabajos, el paso de peatones existente en el lado del río quedará anulado por momentos, debiendo emplear los itinerarios que se habilitarán a tal efecto.
Se ruega atención a la señalización de itinerarios peatonales, cortes y desvíos en la zona de los bidegorris.

Con el objetivo de ir avanzando en los trabajos de mejoras en la red de bidegorris, recordar que el pasado viernes comenzaron los trabajos para la mejora de la rodadura y la señalización del tramo del bidegorri de la Avenida de Los Chopos que enlaza con el de Areneazpi, entre la rotonda de Fadura y el paso de peatones del Garbigune. Unos trabajos que se alargarán durante 6 semanas.

La actuación para la mejora y ampliación de

hartzaileetan jasotako herritarren eskaerari erantzuten dio.

bidegorris da respuesta a la petición ciudadana recogida en los presupuestos participativos de 2021.

**@GetxoUdala**

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen diz egu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.

**@GetxoUdala**

**Oficina de prensa:** 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.